



40. zER da zoRiona?

0. AZALA

Aldizkaria iristean, lehenik eta behin, estal ezazue azaleko lainotxoa, eta, bigarrenik, ezkutatu aldizkaria etxeko edozein txokotan, eta ez esan ezertxo ere zuen hurrei! Ondoren, hartu haurrarekin zaudeten momentu bat, eta esaiozu haurrari: “Jolastu nahi?”, ziur gaude erantzuna baiezkoa izango dela. Orduan, azaldu iezaiozu haurrari jolasa zertan datzan:

- Lehenik eta behin, esaiozu bere gustuko zerbait duzula etxean ezkutatuta.
- Ondoren, berau aurkitzeko hiru modu azalduko dizkiozu. Lehena asmakizunen bitartez, bigarrena “hotz ala bero” esanda eta hirugarrena denbora jakin batean aurkitzea.

Amaitzeko, komikia aurkitzen duzuenean, haxe galdetuko diozu haurrari: “Begira: aldizkariaren azalean dagoen lainoa estalita dago! Jarriko dugu zerbait? Begiratuko diogu azaleko irudiari badaezpada?”. Komikia aurrean duzuela, erreparatu bertan ageri diren irudietan, eta, ondoren, bete ezazue lainoa. Bitarte horretan, egin galdera batzuk haurrari: “Zergatik daude pozez beterik gure lagunak?”, “eguzkia ere pozik dago, ezta?”, “zu pozik zaude?”.

1. GUREKIN JOLASTU NAHI?

Atal honetara iristean, esaiozu haurrari irudian erreparatzeko eta minutu batean bertan ageri diren jolasen izenak orri batean idatzi beharko dituela. Zenbat eta jolas gehiago asmatu, orduan eta puntu gehiago.

Bukatzean, galdetu haurrari: “Nahi duzu jakin zenbat puntu lortu dituzun?”. Ziur erantzuna baiezkoa dela; orduan, konta itzazue bion artean zenbat puntu lortu dituzuen. Ondoren, galdetu haurrari: “Lortutako puntuak zerbait adierazi dizute?”, “zer sentitu duzu?”, “zure ustez, puntu gehiago jaso bazenitu, zoriontsuago izango zinen?”, “zer da garrantzitsuago zuretzat, lortutako puntuak edo jolasean jarritako interesa eta nahia?”.

2. AURKIBIDEA

Irakur ezazue bion artean, bertan ageri den laburpena. Irakurri lasai-lasai, ulertzen ez diren hitzak edo esaldiak ulertuz eta geldialdiak eta galderak eginez; hau da, lasai irakurtzeko proposatzen dugunean, gure nahia ez da soilik zuek mantso irakurtzea bakarrik, baizik eta, aurretik aipatu bezala, testuan zehar elkarri galderak egitea, iritzia ematea...

Ondoren, galdetu haurrari: “Zein da Irrien aldizkaritik gehien gustatzen zaizun atala?”. Has zaitezte zuentzako gustukoena den ataletik! Ongi pasa!



40. zER da zoRionA?

3. PUPU ETA LORE

Pupu eta loreren atalera iristean, ikusiko duzue zoriontasuna zer den galdetzen dutela. Ziur gaude zoriontasuna zer den galdetzean, erantzunak guztiz ezberdinak izango direla. Oraingo honetan, hauxe da gure proposamena:

- Lehenik eta behin, irakurri komikia nahi duzuen bezala (bakarrik, taldean...).
- Bigarrenik, komikia irakurri ondoren, gure proposamena: orri zuri bat esku artean duzuelarik, zuen inguruan dauden familiartekoei, lagunei, bizilagunei eta besteri galdetzea zoriontasunak zer esan nahi duen beraientzat eta zoriontasuna zerk ematen dien. Gero, orri zurian idatzi erantzuna. Aukera bikaina izango da, zuen ingurukoak hobekiago ezagutzeko eta zoriontasunaz gehiago jakiteko.
- Amaitzeko, Pupu eta Loreren komikia hartzea proposatzen dugu, eta zazpigarrenko laukitxoan dagoen erantzunarekin “PRAKTIKAN!!” ados zaudeten edo ez ondoriozta ezazue.

4. PIRRI TX, PORRO TX ETA MARIMOTOTS

Zein zoriontsuak garen, gure haurrekin zerbait konpartitzen dugunean, eta zein zoriontsuak garen, eguneko momentu goxo batean zer edo zer lasai irakurtzen dugunean.

Atal honetara iristean, hau izango da gure proposamena: lehenik eta behin, aurretik aipatu bezala, komikia goxo eta lasai irakurtzea izango da, eta ondoren, komikian ageri diren lehenengo hiru momentuak antzetzeta. Ez duzue zertan antzertu hiru momentu hauek egun berean:

1. momentua, Porro tx jatetxe dotore batean.
2. momentua, Pirri tx etxe dotore batean.
3. momentua, Marimotots jolasparke handi batean.

ANIMATZEN?



40. zER da zoRiona?

5. OSASUNA GURE ONDASUNA

Iritsi gara Tiritatxoren atalera! Hau horrela, lehenik eta behin, irudietan erreparatuko dugu, eta bitarte horretan, galdera batzuk egingo ditugu, ados?

- Zer adierazi nahi digu izenburuak? “Koloretakoki jakiekin, gorputza zoriontsu!”
- Zer ikusten duzu irudietan?
- Zein jaki mota ikus daitezke?
- ...

Ondoren, Tiritatxoren aholkuak irakurriko ditugu. Aholku bakoitzaren ondoren, bi galderari erantzun diogu: "Guk betetzen dugu?", eta, betetzen badugu, "zoriontsuago izango gara?".

6. ELEFANTE BAT HEGAN

Hona hemen gure proposamena:

Atera fotokopia bat “Kusen kontaketa” izenburupean dagoen ipuinari. Jarraian, estali egingo ditugu, ipuinean zehar, esaldi batzuk. Jolasaren helburua, beraz, hutsune horiek betetzea izango da. Hauek betetzean, konpartitzea izango litzateke egokiena; hori horrela, proposa litzateke bi pertsona edo gehiago aritzea jolas horretan; aberatsagoa izango da.

7. EUSKARAREN ETXEA ETA LAGUNTZO BERRIA

Azaldu haurrari irudiek zer-nolako garrantzia izaten duten komikietan. Jarraian, hauxe da gure proposamena:

- Komikia aurrean duzuelarik, begiratu bost segundoz lehen irudiari, eta jarraian, apuntatu horri zuri batean ikusi duzuen.
- Ondoren, erakutsi elkarri idatzitako zerrenda.
- Berdina egin dezakezue ondorengo irudiekin.
- Amaitzean, irakurri komikia goitik beheraino.



40. zER da zoRiona?

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Galdetu haurrari elkarrekin irakurtzea nahi ote duen. Hala nahi badu, kontuan hartu honako puntu hauek:

- Lagundu haurrari ondo irakurtzen; hau da, komak, puntuak, galdera eta harridura ikurrak errespetatzen. Askotan, ez diegu behar adinako garrantzirik ematen ikur horiei. Kontuan izan behar dugu, testu baten egituraketa definitzen dutela eta guztiz garrantzitsuak direla testuaren ulermenerako.
- Testu batetik bestera, egin geldialdiak eta galdera batzuk, testua ulertzen ari garela ziurtatzeko.

Irakurketa amaitzean, hitz berriak atxikiko dizkiogu aurreko ataletan hasitako hitz bildumari: Hitz arraroak, ezezagunak, ekintza adierazten dutenak, "nolako" galderari erantzuten diotenak...

Eta, amaitzeko, bertan irakurritakoa praktikatzeko proposamena egiten dugu!!

9. LAGUN

Lagun-en inguruan egin diguten komikia panpinen bidez dramatizatzea gomendatzen dizugu. Bi pertsonaia ditugu komikian: Porrotx eta Lagun. Beraz, horretarako, txakur panpina bat eta Porrotxen antza duen beste panpina bat erabil ditzakezu.

Ondo prestatu eta gozatu dramatizazioa!

Bukatzean, animatu panpinen bidez kontaturiko istorioa irakurtzera!

10. ASTOA

Bi orri hauek irakurtzera animatzeko, hauxe proposatzen dizuegu:

Saiatu orriak fotokopiatzen, eta esan haurrari astoaren inguruko testutxoa irakurtzen duzuen heinean bertan ageri diren zenbait letra kolore ezberdinez borobilduko dituzuela, adibidez:

- B letra, gorriz.
- K letra berdez.
- M letra urdinez
- L letra horiz.

Behin letrak kolore bidez koloreztaturik, galdera hauek egin diezazkiokezu:

Mundu osoan zehar aurki dezakegu astoa?

Zertarako erabili izan du gizakiak urte askoan astoa?



40. zER da zoRiona?

Euskal Herrian, Enkarterrietako astoa dugu: Zein berezitasun du asto horrek?

...

11. FILOSOFO TXIKIAK

Gure laguntxoek zorientasunaren inguruan hitz egiten digute. Zeinen garrantzitsua den zoriotsu izatea, ezta?

Gure aburuz, komiki polita da haurrari irakurtzeko. Beraz, nahi baduzu, esan haurrari filosofo txikien komikia zuk zeuk irakurriko diozula, bera adi-adi egon dadila entzuten eta amaitzean komikian hitz egiten duten horren inguruan ariko zaretela hizketan.

Irakurtzen amaitzean, galdera hauek egin ahal dizkiozu:

- Noiz egoten zara zu pozik?
- Eta noiz triste?
- Zerk ematen dizu zoriona?
- Nola sentitzen zara orain? Zergatik?

Hitz egin lasai... Garrantzitsua da, oso, emozioen eta sentimenduen inguruan hitz egitea, horiek ezagutu eta adierazten jakitea...

12. MARTIN BERTSO

Marimototsen komikia irakurtzeko, animatu haurra lehenik eta behin, irudiak bakarrik ikustera, eta esan, irakurtzen hasi aurretik, lehenengo istorioa asmatzen saiatuko zaretela.

Komikian esaten dena gutxi gorabehera asmatzen joateko, garrantzitsua izango da arreta handia jartzea gure pertsonaien aurpegi espresioari; hauxe galde diezaiokezu haurrari:

- Nola dago Marimotots: triste, pozik, haserre?
- Beraz, zerbait gertatuko zaiola uste duzu? Zer?
- Eta nola dago Martinber?
- ...

Galdera horiek lagungarri izanda, ea zein istoriotxo asmatzea lortzen duen!

Amaitzean, irakur dezala lasai komikia, eta ziurta dezala zenbatean gerturatu den benetako istoriora!



40. zER da zoRionA?

13. MARIKALANBRE

Oraingo honetan, Manexekin aurkitu dugu Marikalanbre. Manex triste omen dago. Hala ere, Marikalanbrek laster asko lortu du laguna poztea! Irakurri eta ikusi zerk lortu duen bere gogoaldatea aldatzea!

Behin istorioa irakurrita, saiatu orriaren eta txanponaren esperimientua egiten! Ea txanpona zulotik sartzea lortzen duzuen!

14. LARGABISTA

Largabistaren atalarekin jarraituz, zera gomendatzen dizugu oraingoan:

Irakurri haurrari gure lagun Largabistaren, Mari Mototxen eta Porrotxen istorioa. Hala ere, irakurtzeko orduan hutsak egitea proposatzen dizugu. Irakurri ahala hutsak eginda, haurra adi jarriko da zer ari zaren irakurtzen... Beraz, irakurketara erakartzeko bide bat izan daiteke! Eta, aldi berean, jolasean egiteko beste modu bat!

Bukatzean, galdetu zer ikasi duen likidanbarraren inguruan:

- Nolako forma dute likidanbarraren hostoek?
- Zergatik izen hori?
- Nongoak dira?

15. ZENBATAK

Opairria! Zer izan daiteke opairria? Zure haurra komikia irakurtzera animatzeko, zera galde diezaiokezu:

- Oraingo honetan Olentzerori gutuna idazten dihardu gure laguntxoak... Baina zer eskatuko diola uste duzu?
- ...
- Irakurri bion artean komikia, eta ondoren, galdetu haurrari:
- Ondo iruditzen zaizu Olentzerori eskatzen diona? Zuk eskatuko zenioke?
- ...

Azaldu haurrari irri egiteak eta zoriontsu izateak gure bizitzan eta egunerokotasunean zer garrantzia duen... Merezi du-eta minututxo batzuk hartzea honen inguruan hitz egiteko!



40. zER da zoRiona?

16. OLIBATXO

Olibatxo asko arduratzen da gure ingurunea ondo zaintzeaz, eta, horretarako, olioaren erabilera egokia ziurtatzeko moduak erakusten dizkigu. Ez hori bakarrik, izan ere olio nola egiten den ere erakusten baitugu.

Olibatxok olioaren erabilera egokiaren inguruan esaten diguna anitz garrantzitsua dela uste dugu, eta, denontzat baliagarria eta beharrezkoa den zerbait denez, zera proposatzen dizuegu:

- Irakurri testua bion artean, goitik behera; nahi duzuen bezala.
- Hartu kartoi mehe bat, eta bertan, idatzi letra larriz olioaren erabilera egokia ziurtatzeko pausoak: zer egin behar den, zer ez...
- Egin behar dena berdez adieraz dezakezue, eta egin behar ez dena, gorriz.
- Itsatsi kartoi mehea etxean, bistan izango duzuen leku batean.

Lan honekin, helburua da egunerokoan olioaren erabilera egokiaren kontzientzia izatea

17. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Banaturik dauden gurasoen inguruko istoriotxoak kontatzen digute gure laguntxoek. Anderren gurasoak banatu egin dira, eta Patakoni banaketa horren inguruan hitz egiten dio.

Istoria irakurtzeko eta irakurriko duen horretara gerturatzeko, eman diezaiokezu gaiaren inguruko informazio apur bat; alegia, gaian murgildu dezakezu haurra... Horretarako, erabili dezakezu zure esku duzun informazioa, banaketez dakizuna, ikusi izan duzuna, bizi izan duzuna...

Ondoren, istorioa bion artean irakur dezakezue, eta amaieran, gaiaren inguruan hitz egin.

Hitz egin diezaiokezu Agipaseren inguruan (Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte) ere... Beti da ona gai honetaz asko eta lasai hitz egitea... Beraz, irakurtzeaz gainera, hitz egin!